

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jazinto Basterretxea Zuberogoitia

*Munitibar-
Arbatzegi-
Gerrikaitz,
Bizkaia
(1930-2020)*

Aurkibidea



Biografia



Berreño auzoko Susaeta baserrian jaio zen 1930. urtean. Ama Aulestitik bere jaiotetxera etorritakoa zen eta aita Mendatako Solaburukoa. Bost neba-arrebatatik bigarrena izan zen. Gerra Zibilean, etxetik joan behar izan ziren ugazabak irten eraginda eta Madarieta baserrian egon ziren 19 urtez, Aldakazabalera joan arte. Geroztik, bertan bizi izan zen. 1954. urteko abenduan osabarengana joan zen Idahora (AEB) eta 7 urtez aritu zen artzain beharretan. Ameriketatik bueltatu eta "kamiñeru" lanetan ibili zen erretiratu zen arte. Hala ere, sekula ez ditu baserriko lanak eta bertako bizimodua utzi. Totorika auzokoa du emaztea.

Zintak

MUN-010

- **Proiektua:** Munitibarko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2012-10-10
- **Iraupena:** 32 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

MUN-011

- **Proiektua:** Munitibarko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2012-10-10
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

MUN-025

- **Proiektua:** Ahaztuen Oroimena
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bereziartua, Aitor - Ibarzabal, Patxi - Unamuno, Alberto
- **Data:** 2016-01-01
- **Iraupena:** 98 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Tigreen beldurrik ez, trumoi eta oinaztarriena bai

- **Erref:** MUN-010/003
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:02:42. **Bukatu:** 00:04:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

<p>1954an joan zen Ameriketara, artzain. Nahi izanez gero, eraikuntzan ere egin zezakeen lan, baina osaba artzainarengana joan zen. Oroitzapen ona du garai hartaz. Trumoi eta oinaztarriekin beldurtzen zen apur bat, baina bestela piztiengatik-eta ez. Ameriketan piztiak ibiltzen ziren arbola gainetan, tigreak-eta (pumak), baina ez diote ezer egiten gizakiari, zaurituta ez badaude behintzat.</p>

2. Amerikar lankidearekin ingeles apur bat ikasi

- **Erref:** MUN-010/004
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:05:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Hizkuntzak diasporan
- Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Familia eta harremanak diasporan

Laburpena:

<p>Amerikar bat izan zuen lankide eta harekin ikasi zuen ingeles apur bat; neska-kontuak erabiltzen zituzten. Irabazi ahala gastatu egiten ei zuen hark, ganorabako itzela ei zen.</p>

3. Janaria nahi beste izaten zuten

- **Erref:** MUN-010/007
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:07:56. **Bukatu:** 00:10:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

<p>Bostak inguruan jaikitzen ziren Idahon. Ardiak mendian behera eraman eta gero lasai norbera. Eguerdian bazkaria prestatzen zuen. Okela nahi beste, bakailaoa ere bai.</p>

4. 1.500 ardiko lau artalde osabaren esku

- **Erref:** MUN-010/008
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:10:15. **Bukatu:** 00:12:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

<p>Osabak lau sail edo artalde zituen AEBn. Uztailaren 4an saltzen ziren lehen bildotsak. Hainbat tandatan saltzen ziren. 1.600 ardi inguru zuen artalde bakoitzak. Ahariak ("toruak") botatzen zieten ardiei bere garaian ernalketarako. Argal-argal geratzen ziren beren langintzaren amaieran.</p>

5. "Candy" txakurra

- **Erref:** MUN-010/010
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:13:15. **Bukatu:** 00:14:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

<p>Txakur fina izan zuen bere denbora guztian, Candy. Txakurrak berez ikasten dute, berezko sena ekartzen dute. Umealdi bakoitzean lau edo bost txakur jaio daitezke, baina ez dira denak berdinak irteten.</p>

6. Koioleak eta tigreak

- **Erref:** MUN-010/012
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:15:40. **Bukatu:** 00:17:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

<p>Koiole asko egoten zen, baina tranperoak harrapatzen zituen txakur eder batzuen laguntzaz. Artzainek ematen zoten jaten tranperoari. Hartzik ('otsue') ez zuen ikusi. Tigreak (puma) asko. Koioleek untxiak eta erbiak jaten dituzte basamortuan.</p>

7. Untxiak harrapatzeko batidak

- **Erref:** MUN-010/014
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:18:00. **Bukatu:** 00:18:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Diasporako bizimodua

Laburpena:

<p>"Debatiak" (batidak) egiten zituzten makilekin untxiak eta erbiak harrapatzeko eta asko hiltzen zituzten.</p>

8. Boisen funtzionario euskaldunarekin etxean moduan

- **Erref:** MUN-010/020
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:27:12. **Bukatu:** 00:30:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldunak diasporan
- Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Familia eta harremanak diasporan

Laburpena:

<p>Behin Boiseran joan zen paper kontu batengatik. Han funtzionario euskaldun batek hartu zuen. Etxean bezala sentitu zen. Gero ere bisitatu izan zuten eta beti ondo hartuak izan ziren.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-09-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com